



## Txio-txio

**HELBURUAK**

- Modu jostagarri batez, besteak aurkitzen eta elkarri entzuten saiatzea.
- Gure emozioei eustea eta taldeari egokitzea.

**MATERIALAK**

- Begiak estaltzeko zapiak (ilerako zinta zabalak erabil daitezke).

**Jolasaren garapena**

1. Heztaileak *ama* aukeratuko du, beste taldekeek nor den jakin gabe: —*Zeu-izango zara oilo ama*—, esango diogu belarrira, guztiak begiak estalita dauzkatela.

2. Beste guztiak txitak izango dira, eta ikas-gelan zehar ibiliko dira amaren eskuanen bila.

3. Txita batek beste bat topatzen duenean, eskua hartu eta hau xe galdetuko dio: —*Txio-txio?* Beste pertsona ere txita bada, —*Txio-txio!* erantzungo dio, eta, orduan, eskua askatu eta oilo amaren bila segituko dute.

4. Oilo ama da erantzun behar ez duen bakarra, eta txita guztiei eskainiko die eskua. Beraz, *txio-txio* esan eta erantzunik jaso ezean, huraxe da ama; orduan, eskutik heldu eta oilo amaren taldean geratuko gara.

5. Kide bakotza, oilo amaren taldeko baten eskua hartu eta erantzunik hartzen ez duenean erantsiko zaio talde horri, eskutik helduz.

Oiloen taldea handiagotu ahala, txitak gero eta gutxiago izango dira, eta, beraz, isiltasuna, gero eta handia- goa.

Jolasa inor entzuten ez denean amaitzen da. Une horretan, guztiok egongo gara eskutik helduta, iribarretsu eta jolastu bitartean gertatu den guztiak hitz egiteko gogotsu. Gero, pozago egongo gara jolasari, lanari edo beste edozeri heltzeko.

**Iturria:**

GARAIGORDOBIL, Maite: **Juego cooperativo y socialización en el aula. Un programa de juego amistoso, de ayuda y cooperación para el desarrollo socio-afectivo en niños de 6 a 8 años.** Seco Olea Ediciones. Madrid.